



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 5a

22 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengokak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala”. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, aurrekontuko “Familia eta partikularrentzako laguntzak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Osasun-programetarako laguntzak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Telefonía mugikorrek estazioek osasunean izan ditzaketan eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Calahorrako ospitalearekin inolako hitzarmenik egin ote den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Itoizko urtegian kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen aurkako planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako jatorrizko deiturako mahastien hektareen banaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, kotizazio gabeko pentsioei eta azken bost urteotan izan duten bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Ikasketetan sakontzeko bekak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Drogamenpekotasunari aurre egiteko udal planetarako diru laguntza” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza-batzordeen programak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Erakundeentzako diru laguntza, erkidego-prebentzioko programetarako” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Legionellari aurea hartzeari buruz Nafarroako Parlamentuak martxoaren 6an hartutako erabakiaren ondotik, Nafarroako Gobernuak eginikoari eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kontu-hartze sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Etxebizitza arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak” kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Lurzorua erosi eta sustatzea, etxebizitza eta eraikuntza” kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, udako ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, alargun pentsioak hobetzeko neurriak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Osasun Batzordeak Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko uztailaren 2ko 74. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hau defendatzen ahalko da:

– 1 zenbakikoa, Nafarroako Demokratikoen Elkar-gunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

Zuzenketa hori 2001eko azaroaren 22ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Irizpena**

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa**

*ZIOEN AZALPENA*

Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babesaren eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zain-tzea.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikulua ezartzen du "barne osasuna eta higiene alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkiola Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea."

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5.14 artikulua ezartzen duenez, Foru Komunitateko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aldeztu aurretik aurrekontu zuzkidura berekia eta programazio berarizkoa eginez gero egiazki abiatuko direnak.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, 1998ko martxoaren 5eko ebazpen bat zela medio, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen Foru Dekretua onetsi zuen.

Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena Levonogestrel printzipio aktiboa duten sendagaiak finantza zitzan, baina Gobernuak hura betetzeari uko egin dio. Bada, osasun sistema nazionalen farmazia laguntza jasotzeko eskubidea duten Foru Komunitateko herritarrek –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak luzaturiko Banakako Osasun Txartela dutenek– aipatu printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate horiek Nafarroako Foru Komunitatearen baliabide berekien kargura jasotzen dutela bermatzeko, ondoko Foru Lege proposamena: Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena.

**Artikulu bakarra.** Irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuaren eranskinean Levonogestrel

printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate guztiak sartuko dira.

### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuak kanpaina bat abiaraziko du "biharamuneko pilula" izenekoak gaixoenengan izan ditzakeen albo-ondorioei buruzko informazioa zabaltzeko, eta nahi ez diren egoerak saihestea helburu duen sexu-heziketako programa berariazko bat ezarriko du.

### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Bigarrena.** Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu eta, beharrezkoa baldin bada, sortu egingen du aurrekontu kontusail bat, foru lege honen ondorioz 2001. urtean sortzen diren gastuak finantzatzeko.

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Osasun Batzordeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko uztailaren 2ko 74. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Irizpena**

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legearen 70. artikulua dioenez, Estatuak eta autonomia erkidegoek osasun planak onartuko dituzte beren eskumenen esparruan, eta bertan aurreikusiko dituzte osasun arloan urtean edo zenbait urtetan egin beharreko inbertsioak eta ekintzak.

Osasun arloko koordinazio orokorrean honako hau sartuko da:

- Osasun arloko langile, zentro edo zerbitzuei dagokienez dauden beharrak ebaluatzeko gutxie-

neko eta oinarrizko indize edo irizpide komunak, oro har, ezartzea, eta halaber, baliabide instituzionalen eta osasun langileen inbentarioa eta osasun mapak.

- Osasun arloko prebentzio, babes, sustapen eta laguntzaren gaitan gutxieneko helburu edo xede komunak zehaztea.

- Osasun sistema koherente, harmoniko eta solidarioa lortzeko jarduketan eta lehentasunen esparrua.

- Oro har ezartzea osasun programa, zentro edo zerbitzuen eraginkortasuna eta etekinak ebaluatu ahal izateko gutxieneko eta oinarrizko irizpide komunak.

Osasun planak beraz, osasun arloko politika eta huraosatzen duten programak gauzatu ahal izateko behar diren baliabideen aplikazioa gidatuko ditu denboran.

Osasunari buruzko Legea, V. kapituluaren, Foru Komunitateko Osasun Plana taxutzeaz eta onesteko moduez mintzatzen da. 1991ean onartu zen Nafarroako Foru Komunitaterako lehendabiziko osasun plana, 2001. urtera arte indarra izan zezan. Horrenbestez, beharrezkoa da osasun plan berri bat prestatzea, une hauetako errealitateari aurre egiteko.

Baliabideak atxikitzeak eta programak gauzatzeko berarekin ekartzen dutenez plana noizko prestatu den, denbora tarte horretarako aurrekontu ekitaldi bakoitzeko urteko kontsignazioa egin beharra, aurrekontuak onartzeko Parlamentuan

ahal denik eta kontsentsurik handiena bilatzea beste biderik ez dago.

Era berean, beharrezkoa da Parlamentuan ahal den kontsentsurik handiena lortzea planean sartu beharreko programa eta helburuak definitzeko, Foru Komunitatean denbora tarte batean eginen diren osasun ekintzak gidatuko baititu eta herritar guztiengan izanen eragina.

Hori dela eta, honako lege proposamen hau aurkeztu dugu:

**1. artikulua.** Azaroaren 23ko 10/1990 Legearen 22. artikulua aldatzen duena. Hauxe dio, hitzez hitz:

Gobernuak, Osasun Departamentuak proposaturik eta Nafarroako Osasun kontseiluak txostena eman ondotik, osasun plana igorriko du Parlamentura, eztabaidatu eta onesteko, indarra duen plana amaitzen den urtearen barrenean.

Osasun planak alderdi hauen ingurukoak bilduko ditu: osasun egoeraren analisia (osasuna baldintzatzen duena, osasunaren egoera, osasun zerbitzu eta prestazioen analisia); lehentasunak ezarri, helburuak eta gauzatu beharreko programak formulatu (xedeak eta eskuhartzeak osasun zerbitzuetan, xedeak eta eskuhartzeak garrantzizko osasun arazoetan sektore arteko ekintzekin); planaren metodologia eta ebaluazioa; kronograma eta entitate arduradunak; osasun planean aurreikusiriko ekintzak betetzeko behar diren baliabideak zenbatatea.

Osasun plana berrikusi ahal izanen da haren indarraldian zehar, baina beharrezkoa izanen da Parlamentuak onestea berrikuspen hori, Nafarroako Osasun Kontseiluak txostena eman ondotik.

Osasun Departamentuak planaren indarraldia-  
ren urte bakoitzaren lehendabiziko hiru hilekoan igorriko du Parlamentura planaren helburuen ebaluazioa eta betetze mailaren analisia, bai eta hura betetzeko gauzatutako ekintzen txosten zehatza ere.

Plana amaitu eta hurrengo urteko lehen hiru hilekoan eta plan berria aurkeztu aurretik, Osasun Departamentuak Parlamentura igorriko du planaren ebaluazioa eta behin betiko analisia.

### **Xedapen gehigarri berria**

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatearen intereseko politika zehatzei buruz egiten dituen eta aurrekontuetan eragina duten plan guztiak igorriko ditu Nafarroako Parlamentura, honek ezagutu eta onets ditzan.

### **Xedapen iragankorra**

Lege proiektu hau izapidatzen ari dela, Gobernuak, Osasunari buruzko Foru Legearen 22. artikuluan xedatuaz baliatuz, osasun plan berria onartzen badu, ez da aplikatuko aldaketa honetan xedatzen den bezala izapidatu arte.

### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala”**

*INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA*

Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 2002ko otsailaren 22an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala””.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: auto-enplegua, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala”**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2002ko ekainaren 1a baino lehen abiaraz ditzan Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Legeko 75, 76 eta 77. artikuluek denda txikiei laguntzeko jasotzen dituzten planak.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Aurrekontuko “Familia eta partikularrentzako laguntzak” kontusailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Familia eta partikularrentzako laguntzak” kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari

Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du “Familia eta partikularrentzako laguntzak” izeneko 51120-11002-4809-4139 aurrekontu lerroaren egoerarek buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

“Familia eta partikularrentzako laguntzak” izeneko 51120-11002-4809-4139 kontusailetik, 2001eko irailaren 17an, 3.083.030 pezeta gastatu dira. Laguntza hilkutxak ordaintzeko izan da, eta 22 familiak jaso dute, hain zuzen ere haien ahaidea zenak organo edo/eta ehunak eman dituztelako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Aurrekontuko “Osasun-programetarako laguntzak” kontusailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Osasun-programetarako laguntzak” kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du “Osasun-programetarako laguntzak” izeneko 51120-11002-4810-4139 aurrekontu lerroaren egoerarek buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

2001eko irailaren 20an, 57.250.489 pezeta gastatu dira.

Hona kontusail horren kargura ordaindutako programa guztien xehetasunak:

– Asociación Navarra en favor de las personas con discapacidad psíquica elkarte (ANFAS). 1.000.000 pezeta, psikomotrizitate, musikoterapia eta masaje programetarako.

– Asociación de ayuda a niños oncológicos de Navarra (ADANO). 2.000.000 pezeta, ondoko programetarako: Minbiziak jotako haurrei laguntza psikosozial eta ekonomikoa ematea; Informazioa eta sentsibilizazioa.

– Asociación de lucha contra las enfermedades renales (ALCER). 8.000.000 pezeta, ondoko programetarako: Laguntza psikologikoa; Bolondresak; Laguntza dietetikoa; publizitatea eta mentalizazioa; Administrazio lanak eta Jardunaldiak. Propio prestatuturiko hitzarmen batez zehaztuko dira baldintzak.

– Asociación de Ayuda a Niños con Cáncer eta Asociación de Mujeres diagnosticadas de tumores mamarios (ADANO-SARAY)- 1.000.000 pezeta, minbiziak jotako gaixoei eta haien familiei laguntza psikologikoko programarako.

– Asociación de Esclerosis Múltiple de Navarra (ADEMNA). 2.000.000 pezeta. Errehabilitazio psikomotrizeko programarako (fisioterapeuta), 1.000.000 pezeta; Laguntza psikologikoa, 500.000 pezeta; Logopedia zerbitzua, 500.000 pezeta.

– Asociación de Familiares de Enfermos de Alzheimer (AFAN). 5.000.000 pezeta. Ondoko programetarako: Banakako laguntza psikologikoa eta aholkularitza; Alzheimer gaitza duten gaixoen ahaideentzako auto-laguntza taldeak; Oporraldien programa; Alzheimerreko gaixoen ahaide eta zaintzaileak prestatzea. Horretarako propio idatzitako hitzarmen batek behar diren baldintzak zehaztuko ditu.

– Asociación Coordinadora de Disminuidos Físicos de Navarra. 2.000.000 pezeta, ondoko programetarako: minusbaliatuen errehabilitazioa eta mantentzea.

– Asociación Navarra de Diabéticos Tipo 1. 4.000.000 pezeta, ondoko modulu eta programe-tarako: programa orokorrak, diabetesa duten haur eta helduentzako laguntza psikologikoa (1.300.000 pezeta). Lehen modulua: diabetesa duten haurrak; 7-14 urteko haurrentzako prestakuntza kanpalekua (2.000.000 pezeta). Bigarren modulua: diabetesa duten helduak; Diabetesari buruzko hezkuntza mintegi jarraia (250.000 pezeta). Dietetika eta elikadurari buruzko mintegi teoriko eta praktikoa (150.000 pezeta). Hitzaldi ibilta-

riak diabetesari buruz (150.000 pezeta). "Diabetesarekin bizi" mahaingurua (150.000 pezeta). Horretarako propio idatzitako hitzarmen batek behar diren baldintzak zehaztuko ditu.

– Asociación Navarra de Laringectomizados. 1.000.000 pezeta, hestegorriko ahotsarekin hitz egiten eta errehabilitatzen ikasteko eskolak.

– Club Coronario Pamplona. 1.500.000 pezeta, bihotz errehabilitazioko programarako.

– Asociación Navarra para el Parkinson (ANAPAR). 2.000.000 pezeta. Errehabilitazioa: fisioterapia, 750.000 pezeta. Errehabilitazioa: erlaxazioa, arnasketa eta psikoterapia, 750.000 pezeta. Logoterapia ikastaroa, 500.000 pezeta.

– Asociación Saray (Bularreko minbizi). 1.500.000 pezeta, laguntza arlorako eta jarduera eta aurreneurrien arlorako.

– Asociación Voluntariado Geriátrico Franciscano. 1.250.000 pezeta, bakarrik bizi diren edo harreman-sare eskasa duten zaharrei laguntzeko programa.

– Asociación de Retinosis Pigmentaria de Navarra. 800.000 pezeta, ondoko programak egiteko: Laguntza psikologikoa, 325.000 pezeta; RPa daukat, 175.000; Retinosis pigmentarioari buruzko gida bat argitaratzea, 300.000 pezeta.

– Crohn eta ultzeradun kolitisa daukaten gaixoen elkarte (ACCU), 150.000 pezeta. Hitzaldisolaldia egiteko, 100.000 pezeta; auto-laguntzako bilerak, 50.000 pezeta.

– Asociación Navarra de Hemofilia. 375.000 pezeta. gihar eta artikulazioen errehabilitaziorako programa bat egiteko, 250.000 pezeta eta autotratamenduari eta kontrolari buruzko ikastaro bat egiteko, 125.000 pezeta.

– Asociación Navarra de padres de hijos con espina bífida (ANPHEB). 200.000 pezeta Espina Bifidoari buruzko V. Jardunaldiak egiteko.

– Asociación Navarra de padres de niños deficientes visuales Berdintasuna. 150.000 pezeta ondoko programetarako: Gazteentzako laguntza psikologikoa.

– Asociación Mucoviscidosis de Navarra. 400.000 pezeta, fribrosi kistikoak ukitutako gazte nafarrak bainuetxe berezietara joateko eta Bizikidetasun Jardunaldiak antolatzeko.

– Asociación de enfermos con Síndrome de Down. 450.000 pezeta. Ukitu eta ahaideentzako laguntza psikologikoko programetarako, 350.000 pezeta; Sexualitatea eta hezkuntza afektibo



sexuala Down sindromea daukaten pertsonengan izeneko programarako, 100.000 pezeta.

– Asociación de Daño Cerebral de Navarra (ADACEN). 1.500.000 pezeta, ondoko programe-tarako: Errehabilitazio neurokognitiboa, 750.000 pezeta eta errehabilitaziorako sendagilea, 750.000.

– Aspace Fundazioa. 5.000.000 pezeta, errehabilitazioko tratamenduetarako, zailtasun ekonomikoak daukaten Nafarroako haurrentzat. Horretarako propio idatzitako hitzarmen batek behar diren baldintzak zehaztuko ditu.

– Asociación de Fibromialgia de Navarra (AFINA). 500.000 pezeta, errehabilitazio programa bat egiteko (fisioterapeuta).

– Asociación Tratamiento Niños Hiperactivos (ADI). 500.000 pezeta, ondoko programetarako: Gurasoen eskola, 250.000 pezeta, eta Autokontrola garatzea 250.000 pezeta.

– Asociación Navarra para la salud psíquica (ANASAPS). 500.000 pezeta, ondoko programe-tarako: adimen gaixotasunak dauzkaten pertsonen ahaideentzako auto-laguntza zerbitzua, 250.000 pezeta; boluntarioak prestatzeko ikastaroa, 250.000.

– Colectivo Popular Alaiz. 500.000 pezeta, Zabalbide proiekturako (adimen osasuneko zerbitzuak erabiltzen eta normalizazio bidean dauden emakumeak).

– Corellako San José Egoitza. 250.000 pezeta, geriatrico musioterapia programa egiteko.

– Eunete Elkarte. 500.000 pezeta, ondoko programak egiteko: lokuzio-ondoko gorrei arreta eta laguntza ematea; auto-laguntzako talde bat sortzea, 200.000 pezeta. Hizkuntzaren birgaitzea, 300.000 pezeta.

– Asociación de Disminuídos Físicos de la Ribera (AMIMET). 500.000 pezeta ezgaitasun fisikoaren duten pertsonentzako auto-laguntzako taldearen programarako; ahaideentzako auto-laguntzako talderako eta aulki gurpildunekin dantza terapeutikoa egiteko.

– Elizondoko Xauli Gazte Elkarte. 200.000 pezeta, ezgaitasunen bat dutenentzako aisialdi kluba programa egiteko.

– Asociación Navarra de Esclerosis Lateral Amiotrófica (ADELA). 300.000 pezeta, ahaideentzako auto-laguntzako bilerak egiteko.

– Asociación contra la Bulimia y la Anorexia (ABAN). 200.000 pezeta, auto-laguntzako taldeetarako.

– Amagintza. 200.000 pezeta, amaren esnea sustatzeko eta laguntzeko programa.

– Espainiako Gurutze Gorria, Nafarroako Bulego Autonomikoa. 500.000 pezeta, 2001eko Xabieraldian osasun prebentzioan eta laguntzan aritzeko.

– Farmacia Siglo XXI Fundazioa. 1.440.000 pezeta, etxeko erabilerako medikamentuei buruzko hezkuntzari buruzko 15 ikastaro egiteko.

– La Liga de la leche en Navarra. 200.000 pezeta, amaren esnari buruzko sustapen eta informazio kanpaina bat egiteko.

– Azkoiengo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. 250.000 pezeta, "Etxeetan pertsona ezgaituak zaintzeko eskola".

– Erriberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. 150.000 pezeta, Alzheimerria eta bestelako demenziak daukaten gaixoei laguntza emateko.

– Los Arcosko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. 285.000 pezeta, etxeko dependentsia duten pertsonen ahaideentzako auto-laguntzako taldeak izeneko programarako (185.000), emakumea, hirugarren adina eta gazteria hitzaldi eta mintegietarako (100.000).

– Cabanillasko Udala. 100.000 pezeta, Hirugarren adineko gaixo bat nola zaindu izeneko ikastaroa egiteko.

– Zaraitzuko "Virgen de las Nieves" Jubilatuen Elkarte. 100.000 pezeta, alde hartako boluntarioen talde bat prestatzeko ikastaroa egiteko.

– Andosillako Emakumeen Kultur Elkarte (ACUDEMA). 100.000 pezeta, antsietatea, diabetesa, alergiak eta abar gaiari buruzko hitzaldi eta mahai inguruak egiteko.

– Larragako Amudela Elkarte. 100.000 pezeta, antsietate eta depresio egoerei aurrea hartzeko programa egiteko. Osteoporosia eta menopausia. Oroimena estimulatzea.

– Zarakasteluko Avance Emakumeen Elkarte. 160.000 pezeta, ondoko programak egiteko: "Arriskuak nola saihestu" informazio mintegiak (100.000) eta Mantentzeko Soinketa.

– Lizarrako Udala. Emakumearen Batzordea. 200.000 pezeta, ondoko ikastaroak egiteko: "Anorexia eta Bulimia"; "Osasuna eta ongizate fisiko eta psikikoa hobetzea" eta "Emakumea eta Osasuna"; "Zeure burua zaindu".

– Tafallako Udala. Emakumearen Alorra. 100.000 pezeta, ondoko ikastaroak egiteko: "Heltearen plazerra: antsietatea, segurtasun gabezia

eta jokaera pasiboak” eta “Emakumearen estresari buruzko ikastaroa”.

– Orbaibarreko “Donne” Emakumeen Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko ikastaroa egiteko: “Helztearen plazerra: menopausia” eta “Lehen sorospenei buruzko ikastaroa”.

– Murillo El Frutoko El Cambio Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko programa egiteko: “Ohitura osasungarriak sustatzea, elikadura eta ariketa fisikoa; prestakuntza hitzaldiak”.

– El Castillo de Mérida Emakumeen Elkartea. 100.000 pezeta, “Abantaila gehiagorekin bizitzea” hitzaldiak egiteko. Ariketa fisikoa.

– Acedoko “Estemblo” Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko programa egiteko: “Osasunarekin loturiko gaiei buruzko mahaingurua”.

– Nafarroako landa inguruneke emakumeen elkarreetako sarea. 500.000 pezeta, bi osasun jardunaldi egiteko. Lehenbizikoa: Emakumea familia osasunaren protagonista: generoa eta zahartzea. Bigarrena: Bizi ohitura osasungarriak sustatzea; emakumeen harreman afektiboak eta sexualitatea.

– Caparrosoko La Calleja Elkartea. 100.000 pezeta, osasun hezkuntzako informazio aste bat egiteko: hiru hitzaldi, elikatze orekatuari buruz, gaixotasunei buruz eta gaixotasun psikikoei aurrea hartzeari buruz (antsietatea, depresioa, fobiak eta abar).

– Artaxoako La Muralla Elkartea. 100.000 pezeta, etxeko istripuetarako lehen sorospenei buruzko mintegi bat egiteko eta emakumearen bizitzan osasunak duen eraginari buruzko hitzaldi batzuk egiteko (menopausia eta sexualitatea gai hartuta).

– Tafallako “La Rentería” emakumeen Elkartea. 100.000 pezeta, emakume zaharrei zuzendutako programa bat egiteko: oroimen mintegia eta estresari buruzko ikastaroa.

– Berbintzanako Laguna Elkartea. 100.000 pezeta, gaixoak zaintzeari eta emakume zaintzailei buruzko mintegi eta hitzaldiak antolatzeke.

– Obanosko Lamiategui Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko gaiei buruzko hitzaldi edo hitzaldi/mintegi batzuk egiteko: menopausia, estresa, nutrizioa eta geriatría.

– Falcesko Las Arcas Elkartea. 100.000 pezeta, ondokoei buruzko ikastaroak egiteko: dietetika eta nutrizioa, oroimena eta beldurrak gaitzea.

– Las Torres de Miranda de Arga Elkartea. 100.000 pezeta, menopausia eta ostoporosiari

buruzko mahainguru bat egiteko eta etxeko arris-  
kuei aurrea hartzeari buruzko mintegi bat egiteko.

– Marcillako Marecilla Elkartea. 170.000 pezeta, lehen sorospenei buruzko ikastaro bat eta beselako osasun gai batzuei buruzko hitzaldiak egiteko (100.000 pezeta) eta mantentzeko soinketarako (70.000).

– Azkoiengo Piedra Alta Emakumeen Elkartea. 50.000 pezeta, osasunarekin loturiko jarduerak egiteko: dietetika eta nutrizioari buruzko bi hitzaldi.

– Funesko Portegado Elkartea. 100.000 pezeta, osasuna sustatzeko programa bat egiteko: gizarte trebetasunak eta kiromasajea.

– Iruñeko Santa María la Real Etxekoandreen Elkartea. 250.000 pezeta, osasun gaiei buruzko hitzaldiak egiteko.

– Erriberriko Santa María la Real de Olite Etxekoandreen Elkartea. 100.000 pezeta, estresari aurre egiteko erlaxazio eta arnasketa ikastaro bat egiteko.

– San Adriángo Santa María la Real Etxekoandreen Elkartea. 100.000 pezeta, hitzaldi ziklo bat egiteko, ondoko gaiei buruz: adimen osasuna, elikagaiak eta elikadura asaldurak eta erlaxatzen ikasi tentsioak saihesteko.

– Sartagudako Santa María la Real de Sartaguda Etxekoandreen Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko gaiei buruzko ikastaro eta hitzaldiak egiteko: anorexia eta bulimia; elikadura eta nutrizioa eta larruazaleko alergiak.

– Cárcarko Gizarte eta Kultur Elkartea (ASO-CUCAR). 270.000 pezeta, adimen osasun sustatzeko programa eta lehen sorospenei buruzko programa egiteko (100.000 pezeta) eta mantentzeko soinketako programarako (170.000 pezeta).

– Mendigorriako Andiñon Emakumeen elkartea. 100.000 pezeta, erlaxazio teknikei buruzko heziketa jarduera bat egiteko.

– Castejongo Emakumeen Elkartea. 100.000 pezeta, elikatzeko ohitura osasungarriei buruzko heziketa jarduera bat egiteko.

– Villafrancako Asmuvi Emakumeen Elkartea. 100.000 pezeta, ondoko programa egiteko: erlaxatzen ikastea, estresa kontrolatze eta arnasa hartzen ikastea”.

– Garinoaingo Udala (Garinoain, Puiu eta Leotz). 360.000 pezeta, ondoko programa egiteko: Hirugarren adineko jendearentzako ikastaroa.

- Atzin eta Ameskoako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. 425.000 pezeta, ondoko programak egiteko: Podologia (325.000) eta Osasunarekin loturiko gaiei buruzko hitzaldiak (100.000).
- Zarakasteluko Atalaya Jubilatuen Elkartea. 325.000 pezeta, ondoko programak egiteko: hirugarren adinerako mantentzeko soinketa (180.000) eta podologia (145.000).
- Melidako Udala. 288.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: podologia (108.000) eta mantentzeko soinketa (180.000).
- Tafallako Udala. 450.000 pezeta, hirugarren adinerako laguntza podologikoko programarako.
- Uxueko Udala. 120.000 pezeta, hirugarren adinerako mantentzeko soinketa egiteko.
- Caparrosoko Pentsiodunen Elkartea. 128.000 pezeta, hirugarren adinerako mantentzeko soinketa egiteko.
- Cintruénigoko Jubilatuen Kluba. 212.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako.
- Larraintzarko Denok Bat Jubilatuen Elkartea. 218.000 pezeta, ondoko programak egiteko: “Modu osasungarrian zahartzea: zahartzen ikastea” (50.000) eta Hirugarren adinerako mantentzeko soinketa (168.000).
- Falcesko El Salvador Jubilatuen Elkartea. 120.000 pezeta, hirugarren adinerako mantentzeko soinketako programa egiteko.
- Erriberriko Erri-Berri Jubilatuen Elkartea. 160.000 pezeta, hirugarren adinerako mantentzeko soinketako programa egiteko.
- Figarolgo Jubilatuen Elkartea. 200.000 pezeta, ondoko programetarako: Podologia (50.000) eta Hirugarren adinerako mantentzeko soinketa (150.000).
- Erriberako Jubilatuen eta Pentsiodunen Kluba. 415.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: mantentzeko soinketa (150.000) podologia (265.000).
- Funesko Jubilatuen eta Pentsiodunen Kluba. 282.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: hirugarren adinerako mantentzeko gimnasia (112.000) eta podologiako programa (170.000).
- Garesko Jubilatuen Elkartea. 170.000 pezeta, podologiako programa egiteko.
- Leitzako Jubilatuen Elkartea. 163.000 pezeta, podologiako programa egiteko.
- Alloko Mankomunitatea. 500.000 pezeta, ondoko programak egiteko: Gerontogimnasia (325.000) eta podologiako programa (175.000).
- Irantzuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: 500.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: pertsona zahar eta gaixoekin bizi eta haiek zaintzea (150.000) eta hirugarren adinerako podologia programa (350.000).
- Queiles Bailarako Mankomunitatea: 578.000 pezeta, hirugarren adinerako laguntza podologikoko programarako. (Ihena ordainketa, 404.600 pezeta).
- Asociación de Jubilados de Obanos. 80.000 pezeta, hirugarren adinerako laguntza podologikoko programa.
- Azkoiengo Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea. 420.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: mantentzeko soinketa (165.000) eta laguntza podologikoko programa (255.000).
- Aurrabiako San Andrés Jubilatuen Elkartea. 500.000 pezeta, ondokoei buruzko programak egiteko: osasunez zahartzea - 6 hitzaldi (120.000); podologiako programa (250.000) eta erlaxazio programak (130.000).
- Meanoko San Antonio Jubilatuen Elkartea: 128.000 pezeta, mantentzeko soinketako talde bat osatzeko.
- Corellako San Miguel Jubilatuen Elkartea. 178.000 pezeta, hirugarren adinekoei laguntza podologikoa emateko programarako.
- Beireko San Millán Jubilatuen Elkartea. 128.000 pezeta, hirugarren adinekoek mantentzeko soinketa egiteko.
- Fiteroko San Raimundo Abad Jubilatuen Kluba. 143.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako.
- San Martin Unxeko Sor María Muruzabal Jubilatuen Elkartea. 233.000 pezeta, ondoko programak egiteko: hirugarren adinekoentzako mantentzeko soinketa (160.000 pezeta) eta podologia programa (73.000).
- Murillo el Frutoko Santa Agueda Jubilatuen Elkartea. 290.000 pezeta, ondoko programak egiteko: hirugarren adinekoentzako mantentzeko soinketa (180.000) eta podologiako programa (110.000).
- Santacarako Santa Eufemia Jubilatuen Elkartea. 290.000 pezeta, ondoko programak egiteko: hirugarren adinekoentzako mantentzeko soinketa (180.000) eta podologiako programa (110.000).

– Marcellako Virgen del Plu Jubilatuen Elkarte Jubilatuen Elkarte. 360.000 pezeta, ondoko programak egiteko: mantentzeko soinketako programak (198.000) eta podologiako programa (162.000).

– Buñuelgo Virgen Sancho Abarca Jubilatuen Federazioa. 500.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako.

– Castejóngo Yoar Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte. 225.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako.

– Iruñeko Yoar Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte. 700.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako. (lehen ordainketa, 490.000 pezeta).

– Tuterako Yoar Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte. 318.000 pezeta, laguntza podologikoko programarako.

– Cadreitako Doña Blanca de Navarra Jubilatuen Federazioa. 800.000 pezeta, ondoko programak egiteko: mantentzeko soinketa (300.000) eta podologiako programa (500.000). (Lehen ordainketa, 560.000 pezeta).

Gutxiengo etnikoak.- Bi urtetan jarraian egiteko baimendutako jarduerak

– Iruñeko “La Majarí” ijitoen elkarte. 6.237.003 pezeta, Iruñeko eta Iruñerriko gutxiengo etnikoetan osasuna sustatzeko programa bat egiteko (bost agente komunitario kontratatzea).

– Tuterako “La Romani” ijitoen elkarte. 2.000.000 pezeta, ondoko jarduerak egiteko: a) osasuna sustatzea ijitoen komunitatean; b) toxikomaniei aurre egitera zuzendutako osasun hezkuntzako gazteen taldea.

– “Gaz Galo” Nafarroako Ijitoen Elkarteetako Federazioa. 10.580.231 pezeta, ondoko programak egiteko: a) Nafarroako ijitoen familietan osasuna sustatzeko programaren gainbegiratzea eta jarraipena; b) Nafarroako ijitoen familietan osasuna sustatzeko programa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko uztailaren 2ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak, 2001eko ekainaren 21ean, galdera egin du telefonia mugikorreko estazioek osasune-

an izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ez du inongo esku-orririk argitaratu gai horri buruz eta, beraz, ezin diegu erantzun egindako galderari.

Galderak aipatzen duen informazioa Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren "Kontsumo koadernoak" izeneko argitalpenean ageri da, 2000ko abenduko alean, zehazki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafarroan kokatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du komunikabideen kudeaketako enpresa bat Nafar-

roan kokatzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Izan al du Nafarroako Gobernuko ordezkariaren batek kontakturik enpresa horrekin? Baiezkoan, zein izan da emaitza?

Canal 4 Castilla y León, S.L. enpresa harremanetan jarri zen Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin, bere enpresa proiektua aurkezteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti.

## **Galdera, Calahorrako ospitalearekin inolako hitzarmenik egin ote den jakiteko**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Calahorrako ospitalearekin inolako hitzarmenik egin ote den jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari

Elena Torres Miranda andreak, 2001eko maiatzaren 16an, galdera egin du Calahorrako ospitale fundazioarekin inolako hitzarmenik egin ote den jakiteko. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Egun ez dago Calahorrako ospitale fundazioaren eta Osasun Departamentuaren edo Lizarrako barrutiko Zuzendaritzaren arteko inolako hitzarmenik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 8an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Vianako Printzea Erakundeak txostenak eta hirigintza planak onesteko erabiltzen dituen prozedurei eta haren eskumenei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak indarra hartu zuenez geroztik Vianako Printzea Erakundeak txostena ematen du, ondare historikoaz den bezainbatean, Foru Komunitate honetako udalek egiten dituzten hirigintza plan guztiei eta haien aldaketei buruz, aipatutako legearen 115.3.e artikuluan ezarritakoari jarraikiz, udalak behartzen baititu plan horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentura ere igortzera.

Era beran, legeak ezartzen du udalek, behin txostena jasorik, bidezko diren aldaketekin batera (betiere hasieran onartutakoaren funtsezko aldatetarik eragiten ez badute), planak onartuko dituzte behin-behinekoz eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura igorriko, honek behin betikoz onar ditzan (115.5 artikulua), aurkeztutako dokumentazioa bat heldu bada departamentuen txostenekin, horien artean Vianako Printzea Erakundeak emandakoa.

Vianako Printzea Erakundearen aginduzko txostenak dioena eta udalak behin-behinekoz onartutakoa alderaturik, desadostasunak antze-

manez gero uko eginen zaio behin betikoz onesteari, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 116. artikulua 4. zenbakian xedatutakoa betetzeko. Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen txostena, beraz, aginduzkoa ez ezik loteslea ere bada, ondare historikoaz den bezainbatean, udalen hirigintza planak eta haien aldaketak behin betikoz onartzeko, Nafarroako

Gobernuaren gainerako departamentuen txostenekin gertatzen den bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

## Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak, galdera egin du Nafarroako Gobernuak Iruñeko Erakustazokan izaniko parte hartzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna.

#### TURISMO ZERBITZUA:

Nafarroako Gobernuak Iruñeko 3. Erakustazokan parte hartzeko 28 m<sup>2</sup>-ko erakustoki modular bat paratu zuen.

Kostu ekonomikoa, osotara, 1.068.770 pezeta-koa (BEZ barne) izan zen.

Turismo Zerbitzuak urteko azoken planean sartzen du azoka hau ere bertaratzen diren bisitariak, gehienetan nafarrak edo Nafarroaren inguruko autonomia erkidegoetakoak, gure lurraldera asteburuetan edo zubietan etortzeko informazio turistikoa eskuratu dezakeelakoan.

#### MERKATARITZA ZERBITZUA

Merkataritza Zerbitzuak ere presentzia izan zuen azokan urriaren 2ko 326/2000 Foru Dekretuaren bidez sortutako Euroaren Behatokia paraturik. Euroaren Behatokia euroaren trantsizio eta ezarpenerako prozesuan parte hartu eta laguntzeko organo aholku emailea da.

Kontuan harturik 2002ko urtarrilaren 1ean euroa izanen dela euroaren eremuko moneta ofiziala komenigarria eta beharrezkoa iruditu zitzaigun Erakustazokan egotea enpresak eta kontsumitzaileak ohartarazteko moneta berria edukitzeak daukan garrantziaz.

Erakustokiaren kostu ekonomikoa, osotara, langileak, ikus-entzunezkoak barne, 2 milioi pezetakoa izan da, BEZ barne.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

## **Itoizko urtegiaren kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Itoizko urtegiaren kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Itoizko urtegiaren kata arkeologiko edo indusketarik egin den jakiteko eta kaltetutako ondasunei buruzko beste zenbait alderdi ezagutzeko. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. 1999ko maiatzean Museo, Ondasun Higigarri eta Arkeologi Atalak zenbait tokitan zundaketa arkeologikoak egitea agindu zuen, horien ezaugarriak zirela eta aztarna arkeologikoak izan zitezkeelako. Hauexek izan ziren emaitzak:

- Nagore I harpea. Higadurak suntsitua.
- Nagore II harpea. Higadurak suntsitua.
- Nagore III harpea. Higadurak suntsitua.
- Burutxukua I haitzuloa. Biltegi arkeologikoa zuen, legez kanpoko jarduketek arras hustua.
- Burutxukua II harpea. Zundaketa positiboa. Epipaleolitikoko eta Eneolitikoko okupazio mailak identifikaturik.

Datu hauek ezagutzeak Itoizko urtegiaren lanen Ingurumen arloko jarraipen Batzordea azterlan arkeologiko bat egitera bultzatu zuen, Ondare Historikoaren Zerbitzuak eskatuta, urtegiak hartzen duen eremu geografikoaren miaketa sakonean oinarriturik. Obra zuzendaritzaren laguntza teknikoak hartu zuen bere gain lan hori, Ondare Historikoaren Zerbitzuarekin lankidetzan, eta 1999ko udan bete zuen. Haren ondorioz, ustezko interes arkeologikoa zuten 25 kokagune aurkitu ziren, baina denak ez ziren urtegiaren betetze-kotaren azpian gelditzen. Horrekin batera, lana osatzeko beste 5 zundaketa, egiaztatzeak, egin ziren, eta emaitza positiboak izan zituzten kasu hauek.

– Elkon I harpea. Habitata, neolitikoko eta brontze aroko mailak.

– Elkon I harpea. Habitata, erdi aroko eta brontze aroko mailak.

Azterlanetan ondare arkeologikoaz lortutako informazioa ikusirik, urtegia betetzen denerako programaturik dago, hori egin aurretik, lanak sakontzea ukitutako hiru aztarnategietan (Burutxukua II, Elkon I eta Elkon II harpeak) indusketa zabala egiteko.

2. Uritz eta Orbaizko jauregiak:

Uritzko jauregian ez du eraginik Itoizko urtegiak eta Orbaizko ez dago jauregizat hartzen den eraikinik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña



## Behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen aurkako planari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen aurkako planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen aurkako 2001eko planaren betetze-mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna

71320-2269-7132 kontusaila. "Behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen prebentziorako gastu arruntak"

Zuzkidura: 84.260.000 pezeta

#### Aurreikusiriko gastua

Tracasari abeltzaintzako kontrolak egiteko enkargua	14.000.000
ALVOrentzako dirulaguntza, pentsuen analisirako	1.000.000
Sabaizako finkaren gastuak	2.600.000
Nasersari egiaztagirien dirulaguntza kudeatzeko enkargua	5.000.000
Abeltzaintzako ITGri abereen elikadurari buruzko azterlana egiteko enkargua	30.000.000
Bestelakoak (langileak, publizitatea, dietak, joan-etorriak, ekipo nformatikoak, paperak, etab.)	28.000.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>80.600.000</b>

71320-4700-7132 kontusaila. "Entzefalopatia espongiforme kutsakorrekina lotutako jarduketan transferentzia arruntak"

Zuzkidura: 754.480.000 pezeta

#### Aurreikusiriko gastua:

Abere hilak biltzea (Suescun)	41.000.000
Iruñerriko Mankomunitatearen hitzarmena	147.000.000
Animalia irinak eraman eta deuseztatzea	290.000.000
Hitzarmena Tratamientos MER enpresarekin	64.000.000
Behi ume-hazleeentzako laguntza apartekoak	101.000.000
Nasersa. Laborategiaren jardunbiderako laguntza	30.000.000
Nasersa. Behi-aziendarako plan berezia	10.000.000
Aseguruak (Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza)	25.000.000
Nafarrako Aratxea Adierazpen Geografiko Babesturako dirulaguntza	10.000.000
Albaitaritzako egiaztagirirako dirulaguntza	10.000.000
Zezenketetarako dirulaguntzak	11.000.000
Abereen elikadurarako labore alternatiboetarako laguntzak	4.000.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>743.000.000</b>

71320-7700-7132 kontusaila. "Entzefalopatia espongiforme kutsakorrekina lotutako transferentziak"

Zuzkidura: 320.000.000 pezeta

#### Aurreikusiriko gastua:

Hitzarmena Portland enpresarekin	5.000.000
Nahitaez hil beharreko abereengatikoko laguntza	40.000.000
Tratamientos MER enpresarentzako laguntza-Errauskailua	100.000.000
Tratamientos MER enpresarentzako laguntza-Prentsa	8.000.000
Hitzarmena Tratamientos MER enpresarekin	7.500.000
Nasersa. Laborategirako kapital dirulaguntza	10.000.000
Nasersa Irin ekiporako kapital dirulaguntza	6.000.000

Abeltzaintzako ITGrako dirulaguntza, Orreagako aurrerako hazkuntzarako abeltegia	10.000.000
<hr/>	<hr/>
GUZTIRA	186.500.000

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Nafarroako jatorrizko deiturako mahastien hektareen banaketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak Nafarroako jatorrizko deiturako mahastien hektareen banaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du Nafarroako jatorrizko deiturako mahastien hektareen banaketari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Galderak erantzungo ditut egin diren ordena berean, baina zehaztu beharra daukat ez dela adjudikazio hartzaileen identifikaziorik emanen, datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz, horretarako horietako bakoitzaren baimen espresa beharko bailitzateke.

1. Zer irizpide erabili ditu Gobernuak banaketa horretan?

Mahasti berriak aldatzeko arauak eta irizpideak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 1999an eman eta 1999ko irailaren 6ko 11. NAO-n argitaratu zen Foru Aginduan daude adierazirik.

2. Nafarroan jatorrizko deitura eman zaien zerrenda, hektarea kopuruaren eta udalaren arabera.

Erantzunari atxikia dago landaketa egiten den udalen zerrenda eta adjudikaturiko azalera.

3. Beste jatorrizko deitura batzuen eskubideak eskualdatzearen ondorioz, zenbat hektarea, titular eta herritarri eman zaio Nafarroa jatorrizko deitura?

Erantzunari atxikia dago espedienteen zerrenda, udalen arabera eta Transfer eskatutako landaketaren azalera, 2000/2001 kanpainan.

4. Zerk bultzatu du Gobernuak jatorrizko deitura horiek upeltegiei ematera eta ez kooperatibei?

Jatorrizko deiturak bertan inskribatu nahi duten kooperatiba eta arandegiak hartzen ditu. Galdera Transferra eskuratu eta baimentzeari buruzkoa baldin bada, Transferra erostea merkataritzako jarduna da, eskuratzailen nahiri lotua, eta hartaz baliatzeko arauak hauexek dira: maiatzaren 17an Kontseiluak emaniko 1493/1999 Erregelamendua (EE), maiatzaren 31n Kontseiluak emaniko 1227/2000 Erregelamendua (EE), abuztuaren 4ko 1472/2000 Errege Dekretua eta 2000ko azaroaren 8ko Ministerioaren Agindua.

– Zer neurri hartu ditu Gobernuak mahastizain txikiei laguntzeko, jatorrizko deituradun hektareak izan ahal izateko?

Lagapenetik kanpo utziz Errioxako Jatorrizko deituran 10 hektarea baino gehiago eta Nafarroako Jatorrizko deituran 15 hektarea baino gehiago dituzten mahastizainak. Horrez gain, doako esku-bideetako 1.280 hektareako banaketak nekazarietzako (nagusiki nekazariak eta nekazari gazteak) soilik egin dira, lehen aipaturiko foru aginduarekin bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Kotizazio gabeko pentsioei eta azken bost urteotan izan duten bilakaerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak kotizazio gabeko pentsioei eta azken bost urteotan izan duten bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernándezek galdera egin du kotizazio gabeko pentsioei eta azken bost urteotan izan duten bilakaerari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna.

Kotizazio gabeko zenbat pentsio dago Nafarroako Foru Komunitatean? Azken bost urteotan izan duten bilakaera adieraztea nahi da.

Kotizazio gabeko pentsioen kopurua

1996. urtea	3.404
1997. urtea	3.449
1998. urtea	3.420
1999. urtea	3.484
2000. urtea	3.523

• Kotizazio gabeko pentsioek zenbateko gastea egiten dute Nafarroako Foru Komunitatean?

Azken bost urteotan izan duten bilakaera adieraztea nahi da.

Kotizazio gabeko pentsioen gastua

1996. urtea	1.598.823.759
1997. urtea	1.657.634.349
1998. urtea	1.708.021.713
1999. urtea	1.767.384.529
2000. urtea	1.878.648.900

• Ba al du Nafarroako Gobernuak pentsio horien zenbatekoa hobetzeko asmorik hurrengo bi urteetan?

Kotizazio gabeko pentsioak autonomia erkidego guztietan aplikatzen den estatu mailako araudiak erregulatzen ditu.

Nafarroako Gobernuaren eskumena da horiek kudeatzea eta, hortaz, horretarako ezarritako koordinazio eta jarraipen lanetan aritzen da.

Kudeaketaren esperientziak berraztertze irizpide iraunkorra izatea iradokitzen du, kotizazio gabeko pentsioen ezaugarri berariazkoekiko eta gizarte babeseko eta kotizatzen duten pentsioen gainerako sistemekiko.

Koordinazio eta jarraipen lanen bitartez alderdi asko ukitzen dituzten ekarpenak bideratzen dira, eta ez da komenigarritzat hartzen birbalorazio ekonomikoaren planteamendua bestelako neurririk gabe.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du MER hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa batetara eramateari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

2001eko uztailaren 4an Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Iruñerriko Mankomunitatearen "Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A." sozietate publikoak lankidetzak hitzarmena izenpetu zuten.

Lankidetzak horren ondorioz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak konpromisoa hartzen du "Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A." enpresari ordaintzeko "Tratamientos MER, S.L." enpresaren instalazioetan kontzeptu guztietan 2001ean sortu edo sortzen diren MER hondakinaren tratamendutik heldu diren azpiproduktuak bildu, garraiatu, eraldatu eta deuseztatzearekin zerikusia duten jarduketaren kostuaren % 85. Horrez gain 147 milioi pezetara mugatu da hitzarmen honen gehieneko ekarpena. Urtean aurreikusten diren 1.600 tonetarako kalkulaturiko kostua 165,6 pezetakoa da kilo bakoitzeko lehen seihilekoan eta 74 pezetakoa bigarren hiruhilekoan.

Hitzarmenak zehazten du laguntzak jasotzearen truke "Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A." enpresak "konpromisoa hartzen duela MER hondakinaren tratamendutik heldu diren azpiproduktuak berak edo hirugarrenek bildu, garraiatu, eraldatu eta deuseztatzeko jarduketak gauzatzeko" eta diru laguntza jaso dezaketean jarduketak gauzatu izanaren frogagiriak aurkeztuko dituela. Hori dela eta, galderan eskatzen diren datuen eta aipatzen diren gora beheren berri izateko gai horretan ardura duten enpresetara jo beharko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko urriaren 10ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du mahats bilketan aritzen diren langileen lojamenduari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Galderan aipatzen den gaia Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren eskumenekoa da, eta hala dago islaturik aurrekontuko kontusailetan.

Departamentu horren informazioaren arabera, gaurdaino ez da finantzatu inongo inbertsiorik Mendavian.

Halere, kontuan hartuta Nafarroako Enpleguaren Institutuaren aurrekontuan badela kontusail bat, 6 milioiko zenbatekoarekin, "Sasoiko langileentzako etxebizitzak egokitzea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan" izenekoa, abuztuaren 23an izenpetu zen hitzarmen bat bi entitateen artean, horretaz baliaturik toki entitateek inbertsio planak aurkez ditzaten udal titularitateko lokalen ekipamendu eta egokitzapenerako, nekazaritza aritzen diren sasoiko langileek erabil ditzaten.

Aurreikusitako daitekeenez, Mendaviako Udalak ere finantziario hau eskatuko du. Nolanahi ere, herri horretan kanpaleku bat badago, ongi dabilena eta zerbitzu egokiak dituena, haurtzaindegieskola barne.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Bardeako tiro poligonoan militarren ariketak direla-eta dauden bermeei buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz, hona hemen Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1. Nola bermatzen du Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoan orain egiten ari diren ari-

keta militarretan, nahiz eta nafar gehienak aurka egon, ez direla material eta munizio kutsatzaileak erabiltzen ari?

Bardeako entrenamendu militarreko eremuan "material eta munizio kutsatzaileak erabiltzen ari ez dela" ziurtatzeko Nafarroko Gobernuak dauzkan bermeak Defentsa Ministerioak emandakoak dira.

2. Agintari politikoek, gurean Nafarroako Gobernuak, agintari militarren aurrean zer kontrol sistema erabiltzen dituzte bermatzeko ez Estatuko pilotuek ezta NATOkoek ere ez dutela horrelako armarik erabiliko?

"Horrelako armarik erabiliko ez dutela bermatzeko" Nafarroako Gobernuak agintari militarren aurrean duen kontrola, Defentsa Ministerioko Estatu idazkariaren gutunean ageri dena da, eranskinean ikusi daitekeenez.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urriaren 15ean.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Aurrekontuko "Ikasketetan sakontzeko bekak" kontusailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko "Ikasketetan sakontzeko bekak" kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA-EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2001eko irailaren 12an, galdera egin du aurrekontuko 51310-12001-4809-4131 lerroaren betetze egoerari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera igortzen dut Osasun Departamentuko zuzendari nagusiak ekainaren 22an emaniko 748/2001 Ebazpenaren kopia. Ebazpen

horren bidez eman eta ukatzen dira osasun-zientzietan prestatzeko profesionalentzako laguntzak, 2001eko deialdiaren 1. fasea, aurrekontuaren % 50 inguru egiten duena. Ebazteko daude irailaren 30era arte aurkeztutako eskabideak.

Dirulaguntzak martxoaren 19ko 305/2001 Ebazpenaren bidez ezarritako batzorde teknikoak eginiko proposamenari jarraikiz eman eta ukatzen dira.

Aurrekontuko lerroak daukan 24.250.000 pezetako kopurutik 10.925.970 pezeta (%45,06) erabili da, eta 13.324.030 pezeta (% 54,94) gelditzen dira, azaroan adjudikatzeko. Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Aurrekontuko “Irakaskuntza-batzordeen programak” kontusailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Irakaskuntza-batzordeen programak” kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA-EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2001eko irailaren 12an, galdera egin du aurrekontuko 51310-12001-2266-4131-02 lerroaren betetze egoerari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Irakaskuntza batzordeen programei buruzko 51310-12001-2266-4131-02 lerroaren betetze

egoera dela-eta, honekin batera igortzen ditut Osasun Departamentuko zuzendari nagusiak apirilaren 11n eta ekainaren 26an, hurrenez hurren, emaniko 432/2001 eta 811/2001 ebazpenen kopiak. Lehendabizikoaren bidez aurrekontu eman zitzaien ospitaleetako, oinarriko osasun laguntzako, adimen osasuneko, Osasun publikoaren Institutuko eta Vianako Printzea Espezialitateen Zentroko irakaskuntza batzordeei. Bigarren ebazpena, berriz, Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Ubarmin Klinikako irakaskuntza batzordeei buruzkoa da. Hortaz, baimendutako gastuek 9.100.000 pezetako kopurua egiten dute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Aurrekontuko “Drogamenpekotasunari aurre egiteko udal planetarako diru laguntza” kontusailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Drogamenpekotasunari aurre egiteko udal planetarako diru laguntza” kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA-EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2001eko irailaren 1ean, galdera egin du aurrekontuko “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntzak” 51000-00000-4600-4111 lerroaren betetze egoerari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun kontseilariak abenduaren 21ean emaniko 343/2000 Foru Aginduaren bidez onetsi zen beste erakunde eta osasun programetarako dirulaguntzak emateko deialdia, 2001. urtekoa.

Foru agindu horretan ezarri zen zein den dirulaguntza eskatu dezakeena eta zein baldintzatan. 6. puntuan, berriz, aurkeztutako proiektuak ebaluatuko dituen batzordeko kideak zein izanen diren zehazten du eta hurrengoan dirulaguntzak emateko lehentasunak zehaztuko dituzten irizpi-deak ageri dira.

8. puntuan, 3. lerrokadan, espresuki aipatzen dira toki entitateei drogamenpekotasunen eta komunitateko prebentzioaren arloko udal planak garatzeko dirulaguntzak, langileen lansariak ordaintzera zuzenduak eta entitatea behartzen

durenak kontzeptu horretan dirulaguntzaren zenbatekoa bera, gutxienez, gastatzera bere aurrekontutik eta bere funtsekin baliatuz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Aurrekontuko “Erakundeentzako diru laguntza, erkidego-prebentzioko programetarako” kontusailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Erakundeentzako diru laguntza, erkidego-prebentzioko programetarako” kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA-EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2001eko irailaren 1ean, galdera egin du aurrekontuko “Entitateentzako dirulaguntzak, komunitateko prebentziorako programetarako” 51000-00000-4810-4111 lerroaren betetze egoerari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun kontseilariak abenduaren 21ean emaniko 343/2000 Foru Aginduaren bidez onetsi zen beste erakunde eta osasun programetarako dirulaguntzak emateko deialdia, 2001. urtekoa.

Foru agindu horretan ezarri zen zein den dirulaguntza eskatu dezakeena eta zein baldintzatan. 6. puntuan, berriz, aurkeztutako proiektuak ebaluatuko dituen batzordeko kideak zein izanen

diren zehazten du eta hurrengoan dirulaguntzak emateko lehentasunak zehaztuko dituzten irizpi-deak ageri dira.

Parlamentariaren galderak aipatutako aurrekontu lerroa batzordearen iritziz dirulaguntza jaso behar zuten programa guztiei aurre egiteko nahikoa ez zenez, aurrekontu doitzeko eskaera egin zen, eta 8.037.000 pezetako zenbatekoa transferitu zen “Drogamenpekotasunaren kontrako udal planetarako dirulaguntzak” 500000-51000-4600-411100 kontusailetik “Entitateentzako dirulaguntzak komunitate prebentziorako programetarako” 500000-51000-4810-411100 kontusailera. Transferentzia Osasun kontseilariak ekainaren 15ean emaniko 394/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Entitate bakoitzari ematen zaion dirulaguntzaren zenbatekoa eta egin beharreko jarduerak Osasun zuzendari nagusiak apirilaren 30ean emaniko 507/2001 Ebazpenean, honi atxikirik dagoen horretan, ageri dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



## **Legionellari aurrea hartzeari buruz Nafarroako Parlamentuak martxoaren 6an hartutako erabakiaren ondotik, Nafarroako Gobernuak eginkoari eta hartutako neurriei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak legionellari aurrea hartzeari buruz Nafarroako Parlamentuak martxoaren 6an hartutako erabakiaren ondotik, Nafarroako Gobernuak eginkoari eta hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du, 2001eko abuztuaren 27an, Legionellari aurrea hartzeari buruz Nafarroako Gobernuak eginkoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Legionellaren kontrako borrokaren gakoa da bakteria hedatzeko abiapuntu bihurtu daitezkeen instalazioetan aurre neurriak hartzea, eta horretarako eremu zikinak kendu edo murriztea diseinu on baten bidez eta mantentze-lanen egokien bitartez, baita legionellaren biziraupen eta ugalketarako bide ematen duten baldintzak ekiditea ere, uraren tenperatura kontrolatuz eta desinfektatuz etengabe.

Legionella detektatzeko analisi sistematikoak egiteak, gaixotasunaren zantzurik ez dagoenean, izugarrizko ahalegina eskatzen du, habitat oso zabala duelako, eta ahalegin horrek ez ohi du ekartzen, gainera, legionellaren prebentzio eta kontrol hoberik, eta hala frogatu dute entzute handiko erakundeek, Atlantako Gaixotasunen Kontrolerako Zentroak, esate baterako.

Abiapuntu horiekin, beraz, funtsezko tresna arau bat argitaratzea zen, gaixotasuna agertu eta zabaltzeko arriskua ahalik eta txikiena izateko xedearekin instalazio horiek bete beharreko baldintzak eta funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako beharrezkoak finkatzeko horren bidez.

Arau hori ez izanagatik ere, Nafarroako Parlamentuak agindua eman zuenez, arlo honetan jarduteko protokolo bat egin zen, baina ez da abiarazi aldaketak ezarri behar zaizkiolako,

legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko irizpide higieniko-sanitarioak ezarri zituen 909/2001 Errege Dekretua, zeinetan parte hartze aktiboa izan zuten Osasun Publikoaren Institutuko teknikariek, argitaratu izanaren ondorioz.

Nafarroako Gobernuak 2001eko urriaren 15eko bilkuran onetsi zuen foru dekretu bat aipatutako errege dekretuaren zenbait alderdi gartzan dituen gure foru komunitatean aplikatu daitezkeen.

Beste alderdi funtsezko bat da jakitea bakteria hedatu dezaketen instalazioak zenbait diren eta non dauden. Horretarako, Errege Dekretuak 2002ko urtarrilaren 28rainoko epe ematen du jardunean dauden hozte-dorrean eta lurruntze-kondentsadoreen titularrek jakinaraz diezaizoten administrazioari badirela eta zein ezaugarri tekniko dituzten. Hori dela eta, epe amaitu arte ez dugu zentsua esku artean izan.

Aipatutako guztian oinarriturik, eta jakinik legionella transmiti lezaketen instalazio kopurua handi samarra dela, Nafarroako legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako plan bat, lehenasuna emanez establezimenduak ikuskatzeari eta ez banakako iturriak, pertsonentzako balizko arriskuaren arabera, honelaxe:

- Barneko gaixoak dituzten osasun zentroak
- Arriskuko egoitzak (hirugarren adina, ezindu fisikoak, ezindu psikikoak...)
- Ostalaritzako establezimenduak
- Hozte-dorreak eta lurruntze-kondentsadoreak dituzten industriak eta establezimendu publikoak.
- Bainuetxeak
- Erabilera publikoko igerilekuak, ontzi klimatizatuak, hidromasajeak, etab. Ditutzenak.
- Dutxa zerbitzu publikoa duten zerbitzuguneak.

Gaixotasuna heda lezaketen instalazioak mota batekoak edo gehiagokoak diren alde batera utzita.

Ikuskapen horietan, funtsean, legionella transmiti lezaketen instalazioak aztertu, mantentze-lan tekniko eta osasun mailakoak egiaztatu eta uraren tratamendua eta kalitate kontrola egiaztatuko dira,

baina laginak hartuko dira, soilik, ikuskapenari jarraikiz egokitzen den instalazioetan, 909/2001 Errege Dekretuak ezarri bezala.

2001eko ekainean Osasun Publikoaren Institutuak legionellaren inguruko prestakuntza jardunaldi bat antolatu zuen (ponentzia egileek lehenago ezin zutela-eta irailaren 18ra arte egiterik izan ez bazen ere). Jardunaldi hartara Osasun Publikoaren Institutuko teknikariak, Iruña eta Tuterako udaletako teknikariak eta Nafarroako ospitale publikoetako mantentze arloko eta prebentzio medikuntzako langileak bertaratu ziren.

Bestalde, ailegatzen joan diren kontsultei ere erantzuna ematen zaie, eta legionellaren prebentziorako neurriei buruzko dokumentazioa eskaintzen da.

Ondoko osasun ikuskapenak ere egin dira, instalazioetako arriskuen ebaluazioarekin eta hartu beharreko prebentzio neurriei buruzko informazioarekin:

Industriak. Eguzkia NHK (Altsasu), Navex Elásticos (Cascante), Agralco S. Cooperatiba eta Renolit Hispania (Lizarra).

Hotelak. Villa de Buñuel Hostala (Buñuel) eta Villa de Castejón Hotela (Castejón).

Gazteentzako aterpetxe eta egoitzak. Santo Cristo de Otadia Gazte gazteentzako aterpetxea (Altsasu), Oncineda gazteentzako aterpetxea (Lizarra), Lekarozko gazteentzako aterpetxea, Iruñeko Fuerte del Príncipe gazteentzako aterpetxea, Orreagako gazteentzako aterpetxea (Orreaga), Doneztebeko gazteentzako aterpetxea eta Las Amescoas eskualdeko ikastetxe publikoa (Zudairi).

Zaharretxeak. San Isidro (Irunberri).

Igerileku klimatizatuak. Arbizuko kiroldegia (Arbizu), Lagunak udal zerbitzua (Barañain) eta Zizur Nagusiko udal igerilekuak (Zizur Nagusia).

Osasun zentroak. Bideko Ama Birjina Ospitalea, Nafarroako Ospitalea (Iruña) eta San Francisco Javier Psikogeriatrikoa.

Kontsumo publikoko ura banatzen duten instalazioen kontrolari dagokionez, egunero egiten dira desinfekzio kontrolak eta kontrol analitikoak, arlo horretan indarra duten legeetan ezarritakoarekin bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Nafarroako Gobernuko kontu-hartze sistemari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroako Gobernuko kontu-hartze sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuko kontu-hartze sistemari buruzko Foru Legearen betetzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Egun, kontu-hartzaitzari aritzen direnak hauek dira: atalburu bat (ogasuneko gestorea), ogasuneko lau gestore, erdi mailako bi tituludun, kontu-hartzaile bat, promozioan dauden erdi mailako bi tituludun eta erdi mailako bi tituludun. Langile guztiak B mailakoak dira.

Kontuen Ganbarak agerian utzi ditu barne kontrolaren sistemak dituen ahuleziak, plantilla egokitzat hartzen diren behar eta kontrol estandarretara egokiturik ez egotetik heldu direnak. Nafarroako Gobernuak gomendioa onartu eta aintzat hartuz jokatu du.

Nafarroako Gobernuak urriaren 1ean eginiko bilkuran plantilla organikoa aldatu zuen arlo honi A mailako langileak atxikitzeko: administrazio

publikoko 14 teknikari (arlo ekonomikoa) eta arlo juridikoko bat, gure administrazioaren integritatea eta kaudimena eragin dezaketen alderdi guztiak kontrolatu eta zaintzen aritzen den langile taldea sendotzeko testuinguruaren barrenean.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta honen erakunde autonomoen Kontuhartzaitza Nagusiak egiten duen barne-kontrolari buruzko araudia onesten duen maiatzaren 3ko 132/1999 Foru Dekretuak aurreikusten du Ekonomia eta Ogasun kontseilariak izendatuko dituela kontuhartzaileak, departamentuko langileen arte-tik.

Ez dute, halere, plantilla organikoan lanpostuak bereizirik dituen kidego bat osatzen, giza baliabideen arazoizko kudeaketak berarekin dakarren plantillaren malgutasunaren kontrakoa lihoakeelako. Izendapen bidez atxikitzen zaizkio eginkizunari, eta horrek aipatutako foru dekretuan ageri diren eskubideak eta betebeharrak ematen dizkie.

Kontu-hartzaitzako eginkizuna nola dagoen eraturik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta honen erakunde autonomoen Kontu-hartzaitza Nagusiak egiten duen barne-kontrolari buruzko araudia onesten duen maiatzaren 3ko 132/1999 Foru Dekretuan ageri da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluari jarraituz.

Iruñean, 2001ko urriaren 11n.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Aurrekontuko “Lurzorua erosi eta sustatzea, etxebizitza eta eraikuntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak aurrekontuko “Lurzorua erosi eta sustatzea, etxebizitza eta eraikuntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du aurrekontuko 32210 200000 6000 4311 “Lurzorua erosi eta sustatzea, etxebizitza eta eraikuntza” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. 2001-10-1ean 1.712 milioi pezetako gasturako baimena eman da, hau da, egun horretan zeukan 2.650 milioi pezetako zuzkiduraren %64,60. Horietatik, 905 milioi pezeta daude ordaindurik.

2.

KONTZEPTUA	PEZETAK, MILIOITAN
Mendillorriko jauregia sendotzea	70
Sarrigurengo bide sarearen lotunea	300
Mendillorriko lanak	2
Urbanizazioa Buztintxurin (Iruña)	980
Urbanizazioa UE 37 (Tutera)	65
Urbanizazioa Arrotxapean (Iruña)	50
Erosketa Corellan	2
Urbanizazioa Mendillorriko 4. fasean	243
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.713</b>

3 eta 4. Gaur arte bete gabeko gastu hitzartua hasita dauden obrena da: Sarrigurengo bide sarearen lotunea, Mendillorriko 4. faseko urbanizazioa, Buztintxuriko eta Arrotxapeko urbanizazioa.

5. Seguruenik kontusaila osorik beteko da 2001ean eta aurrekontuko transferentzia egin beharko dira kostu handiagoak finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 189. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 18an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros.

## **Aurrekontuko “Etxebizitza arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak aurrekontuko “Etxebizitza arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du aurrekontuko 32220 200000 7800 4312 “Etxebizitza arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.2001-10-1ean 2.884 milioi pezetako gasturako baimena eman da, hau da, egun horretan zeukan 6.030 milioi pezetako zuzkiduraren % 45,58. Horietatik, 2.461 milioi pezeta daude ordaindurik.

2.

KONTZEPTUA	PEZETAK, MILIOITAN
Mailegu kualifikatuen subsidioak	191
Errentako etxebizitzak	555
Etxebizitza erosteko dirulaguntzak	699
Gizarteratzeko etxebizitzak	444
Etxebizitzak zaharberritzea	995
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.884</b>

3 eta 4. Ez dago kontabilitatean hitzarturiko gasturik.

5. Kontusaila ez da seguruenik osorik beteko 2001ean, hipoteka interesen jokaera aldekoari eta mailegu kualifikatuen interes tasak berrikusteko itundu ziren formula onei esker, bai eta etxebizitza babestuen kalifikazio erritmoari esker ere. Aurreikusirik dago kontusail honen saldo soberakina lurzorua erosi eta sustatzea, etxebizitza eta eraikuntza kontusailari transferitzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 189. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 18an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros.

## Udako ikastaroei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak udako ikastaroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du udako ikastaroei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Zure galderak aipatzen dituen udako ikastaroak zenbait erakundek antolatuta dira. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Nafarroako Unibertsitateak antolatutako ikastaroak (11.700.000 pezeta), Culturas Millenium Fundazioak antolatutakoak (1.300.000 pezeta) eta Nafar Ateneoak antolatutakoak (1.000.000 pezeta) finantzatu ditu, guztira 14.000.000 pezeta. Alderdien konpromisoak lankidetzaren hitzarmen hauetan formalizatu dira:

a) Maiatzaren 31ko 123/01 Ebazpena, lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Unibertsitatearekin (2001-07-20ko 88. NAO).

b) Maiatzaren 31ko 121/01 Ebazpena, lankidetzaren hitzarmena Culturas Millenium Fundazioarekin (2001-07-20ko 88. NAO).

c) Maiatzaren 31ko 122/01 Ebazpena, lankidetzaren hitzarmena Nafar Ateneoarekin (2001-07-20ko 88. NAO).

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Iruñeko UNEDeko ikastetxe elkartuen eta Tuterako UNEDeko ikastetxe elkartuen jardueren babesle Nafarroako Kutxa Fundazioa eta Iruñeko Udala izan dira. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak jardueren programa zabaltzeko gastuak finantzatu ditu 5.000.000 pezetarekin.

2) Nafarroako Unibertsitate Publikoak honako ikastaro hauek antolatu ditu:

1. Hemingway: "Fiestak 75 urte" (Arrosadiako campusa: 2001eko uztailaren 2,3 eta 4). Parte hartu zuten irakasleak, hauexek:

– Cándido Pérez Gallego jauna, Unibertsitate Konplutenseko hizkuntza eta literatura ingeles eta iparramerikarreko katedraduna, Shakespeare Fundazioaren Espainiako ohorezko lehendakaria.

– José Antonio Gurpegi jauna. Alcalá de Henaresko Unibertsitatea.

– Allen Josephs jauna, AEBetako West Floridako Unibertsitatea.

– Beatriz Peñas Ibáñez andrea. Zaragozako Unibertsitatea.

– Andrés Amorós jauna. Arte eszenikoetako zuzendaria eta idazlea.

– José Esteban, idazlea.

– Federico Eguíluz Ortiz de Latierro jauna, Euskal Herriko Unibertsitatea.

– Douglas LaPrade jauna, Texasako Unibertsitatea.

– Gabriel Rodríguez Pazos jauna, Nafarroako Unibertsitatea.

– Miriam B. Mandel andrea, Tel Aviveko Unibertsitatea.

Ikastaroan 9 ikaslek hartu dute parte.

2. "Hidrologia kudeaketa eta planifikazioa" (Bertizko jaurerria; 2001eko uztailaren 16, 17 eta 18; 20 ordu). Parte hartu zuten irakasleak:

– Javier López Rodríguez jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra.

– José Angel Erro jauna, Nilsaren Ustiapen eta Kontrol Ataleko burua.

– José Francisco Alenza jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra.

– Miguel Horta jauna, Riegos de Navarra, S.A.ren zuzendari kudeatzailea.

– César Pérez jauna, Nafarroako Gobernu ingurumeneko teknikaria.

– Joaquín Andreu jauna, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko ingeniari hidraulikoko katedraduna.

– Andrés Sahuquillo jauna, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko ingeniari hidraulikoko katedraduna.

– Alberto Garrido jauna, Madrileko Unibertsitate Politeknikoko irakasle titularra.

– Emilio Custodio jauna, Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoko katedraduna eta Espainiako Geologia eta Mehatzetako Institutuko zuzendari nagusia.

– Antonio Coch jauna, Ebroren Konfederazio Hidrografikoko Plangintza Bulegoko burua.

– Teodoro Estrela jauna, CEDEXen programa tekniko zientifikoaren koordinatzailea.

– José Roldán jauna, Córdoba Unibertsitateko ingeniari hidraulikoko katedraduna.

– Javier Barragán jauna, Lleidako Unibertsitateko ingeniari hidraulikoko katedraduna.

Ikastaroan 31 ikaslek hartu zuten parte.

3."Eguzkiko energia fotovoltaikoa hirugarren milurtekoari begira". (Bertizko jaurerria, 2001eko uztailaren 16, 17 eta 18an; 20 ordu). Parte hartu zuten irakasleak hauexek izan ziren:

– Joseph Appelbaum, Tel Aviveko Unibertsitateko eta Fellow IEEEko Full Professor.

– Eduardo Lorenzo jauna, Madrileko Unibertsitate Politeknikoko IESeko teknologia elektronikoko katedraduna.

– Fernando Fabero jauna, CIEMATeko iker-tzaile titularra, CTN 206 AENOR Azpibatzordearen lehendakaria.

– Fermín Galbarra jauna, Iberdrolako teknikaria, Iparraldeko Erregioko behe-tentsioaren neurriaren arduraduna.

– Rafael Illanes jauna, Madrileko Unibertsitate Politeknikoko Nekazaritza eta Basogintzako ingeniari arloko irakasle titularra.

– Francisco Ramírez jauna, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nekazaritza eta Basogintzako ingeniari arloko irakasle titularra.

– Óscar Aceves jauna, Teulades y Façanes Multifunctionals enpresako zuzendari kudeatzailea.

– Miguel Arrarás jauna, Aesoleko zuzendari kudeatzailea.

– Joan Pallise jauna, AUMA, Ingurumeneko kontsultarien kontsultaren arloko zuzendaria eta bizitza zikloaren azterketa eta analisiaren arduraduna.

– Gaspar Domench jauna, Nafarroako Gobernu Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Energia Ataleko burua.

42 ikaslek hartu zuten parte.

4."Animalien osasunetik gizakien osasunera" (Bertizko jaurerria, 2001eko uztailaren 16, 17 eta 18an; 20 ordu). Parte hartu zuten irakasleak hauexek izan ziren:

– Gerald Wells jauna, patologo albaitaria, Veterinary Laboratories Agency, Addleton, Erresuma Batua.

– María Gasset andrea, CSICen Kimika Fisikoren Rocasolano Institutuko ikertzailea.

– Juan José Badiola jauna, Zaragozako Unibertsitateko Animalien Osasuneko katedraduna eta animalien entzefalopatia espongiforme kutsakorren Erreferentziako Laborategiko zuzendaria.

– Eric Saman jauna, Innogenetics enpresako VIHren programako zuzendaria.

– Bárbara Blacklaws andrea, Cambridgeko Unibertsitateko albaitaritzako immunologiako irakaslea.

– María Neira andrea, OMEko eritasun kutsagarrien arloko zuzendaria.

– José Manuel Sánchez Vizcaíno jauna, Nekazaritzako Ikerkuntzarako eta Elikaduraren Teknologiarako Institutu Nazionaleko Animalien Osasunari buruzko Ikerketa Zentroko zuzendaria.

– Isabel Vázquez andrea, Espainiako animalien osasunari buruzko ikerketa programen prospektiba eta koordinaziorako Idazkaritza Nagusiarren Abeltzaintzaren Arloko zerbitziburua.

– Antonio Figueras jauna, ikertzailea, CSICeko Itsas Ikerketen Institutuko zuzendaria (Vigo).

Ikastaroan 30 ikaslek hartu zuten parte.

3. Nafarroako Unibertsitateak honako ikastaro eta jarduerak gauzatu ditu:

1. Hasiera hitzaldia: “Jakintzaren gizartearen-tzako erronka: adimenaren eta afektibitatearen hezkuntza”, Nafarroako Unibertsitateko areto nagusian, Enrique Rojas Marcos jaunak emandakoa 2001eko irailaren 3an. 200 pertsona inguru bertaratu ziren.

2. “Europako Batasuna: gaurkotasunezko zenbait gai” (Iturramako kultur etxea; 2001eko irailaren 3tik 7ra bitarte; 10 ordu). Irakasle hauek hartu zuten parte:

– Alfonso Dastis jauna, Gobernuako Lehendakariakoa.

– Francisco Aldecoa jauna, Madrileko Unibertsitate Konplutensea.

– Miguel Bauza jauna, Europako Aferetako Estatu Idazkaritzakoa (Kanpo Aferetako Ministerioa).

– Jerzy Marianovak jauna, Poloniako Errepublikak Espainian duen enbaxadorea.

– Elvira Martínez Chacón andrea, Nafarroako Unibertsitatekoa.

– Bernardo de Sicart jauna, Gobernuako lehendakariordetza eta Barne Ministerioa.

– Ricardo Pérez Villota jauna, Europako Aferetako Estatu Idazkaritzakoa (Kanpo Aferetako Ministerioa).

– Cleto Sánchez Vellisco jauna, Europako Aferetako Estatu Idazkaritzakoa (Kanpo Aferetako Ministerioa).

– Pedro Lozano Bartolozzi jauna, Nafarroako Unibertsitatekoa.

– Alberto Navarro jauna, Europako Batasuneko Kontseilukoa.

– Juan José Grau jauna, Nafarroako Gobernukoa.

58 ikaslek hartu zuten parte.

3. “Euskal historia eta kultura. Hurbilketa bat” (Nafarroako Unibertsitatearen eraikin nagusia; 2001eko irailaren 3tik 7ra bitarte; 10 ordu). Irakasleak hauek izan ziren:

– Joaquín Gorrochategui jauna, Euskal Herriko Unibertsitatekoa.

– Ricardo Gómez jauna, Euskal Herriko Unibertsitatekoa.

– Mikel Aranburu jauna, Nafarroako Gobernua.

– Antón Erkoreka, Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Museoko zuzendaria.

– Jon Kortazar jauna, Euskal Herriko Unibertsitatekoa.

– Ana Toledo andrea, Deustuko Unibertsitatekoa.

– Emilio Quintanilla jauna, Nafarroako Unibertsitatekoa.

– Óscar Álvarez Gila jauna, Euskal Herriko Unibertsitatekoa.

– Manuel Ferrer jauna, Nafarroako Unibertsitatekoa.

21 ikaslek hartu zuten parte.

4. “Inmigrazioa” (Eraikin nagusia eta gizarte zientzien eraikina; 2001eko irailaren 7tik 15era; 20 ordu). Irakasle hauek hartu zuten parte:

– Alban d’Entremont jauna, geografia ekonomikoko irakaslea, Nafarroako Unibertsitateko Geografia Departamentuko zuzendaria.

– Carolina Montoro andrea, Nafarroako Unibertsitateko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Geografiako irakaslea, Demografiako masterra.

– Juan José Pons jauna, Nafarroako Unibertsitateko giza geografiako irakaslea.

– Dolores López Hernández andrea, Nafarroako Unibertsitateko giza geografiako irakaslea eta geografiako masterra.

– José Pérez Adán jauna, Nafarroako Unibertsitateko soziologia irakaslea.

– Elvira Martínez Chacón andrea, Nafarroako Unibertsitateko Munduko eta Espainiako ekonomiako irakaslea, Europako Ikerketetarako Zentroko zuzendariordea.

– Angela Aparisi Miralles andrea, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiaren eta Zuzenbide Naturalaren Departamentuko zuzendaria.

45 ikasle hartu zuten parte ikastaroan.

5. “Heldu den Iruña: XXI. mendeko hirigintza” (Iturramako kultur etxea, 2001eko 10etik 14ra bitarte; 10 ordu). Parte hartu zuten irakasleak hauexek izan ziren:

– Luis Tena jauna, Nafarroako Unibertsitateko Arkitekturako Goi Mailako Eskola.

– Joan Roig jauna, arkitektoa, Bartzelonako Arkitekturako Goi Mailako Eskola Teknikoko proiektuen irakaslea eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Paisaiaren irakaslea.

– Javier Pérez Herreras jauna, arkitektoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko adierazpen garfrikoko irakaslea.

– Leopoldo Gil jauna, Vianako Printzea Era-kundeko arkitektoa eta Nafarroako Unibertsitateko Arkitekturako Goi Mailako Eskola Teknikoko irakaslea.

– Javier Cenicacelaya jauna, arkitektoa, Donostiako Arkitekturako Goi Mailako Eskola Teknikoko proiektuen irakaslea eta zuzendariordea.

– Luis Zarraluqui jauna, Nafarroako Gobernu-ko Hirigintza eta Etxebizitza zuzendaria.

– Enrique Maya jauna, Iruñeko Udaleko Hirigintza zuzendaria.

94 ikasle hartu zuten parte.

6. “90etako zinea” (Gizarte zientzien eraikina; 2001eko irailaren 12tik 15era; 12 ordu). Irakasle hauek hartu zuten parte:

– Efrén Cuevas jauna, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatekoa.

– Xabier Pérez jauna, Universitat Pompeu Fabra.

– Juan José García Noblejas jauna, Nafarroako Unibertsitatekoa.

– Alberto Cañada jauna, Saide.

– Juan Vicente Córdoba jauna, ekoizlea, gidolaria, zuzendaria.

– Matilde Olarte andrea, Salamancako Unibertsitatea.

– Jordi Gasull jauna, gidolaria, ESICMA ekoizpen etxekoa.

– Javier Aguirresarobe jauna, argazkilaritzako zuzendaria.

– Javier Corcuera jauna, zuzendaria.

19 ikasle parte hartu zuten.

7. “Idatzizko kazetaritzaren joera berriak” (Gizarte zientzien eraikina; 2001eko irailaren 13 eta 14; 11 ordu). Irakasle hauek hartu zuten parte:

– Javier Errea jauna, Nafarroako Unibertsitateko kazetaritza proiektuetako eta egunkari eta aldizkarien edizioko irakaslea.

– Francisco Sancho jauna, Nafarroako Unibertsitateko kazetaritza proiektuetako eta egunkari eta aldizkarien edizioko irakaslea.

– José Salaverría jauna, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio multimediarako laborategiko zuzendaria.

– Jesús Zorrilla jauna, Nafarroako Unibertsitateko kazetaritzako diseinuko irakaslea.

– Carlos Roldán jauna, El Norte de Castilla egunkariko zuzendaria.

Ikastaro honetan 29 ikasle hartu zuten parte.

8. “Errealitatea eta zuzenbidea” (Gizarte zientzien eraikina; 2001eko irailaren 19 eta 20; 20 ordu). Irakasle hauek hartu zuten parte:

– Guillermo Barrios Baudor jauna, Rey Juan Carlos I Unibertsitatea.

– Jesús Trillo-Figueroa Martínez Conde jauna, Iberdrola.

– Eduardo Ruiz de Erenchun Arteché jauna, abokatua.

– Ana Azurmendi Adarraga andrea, Nafarroako Unibertsitatea.

– Javier Nanclares Valle jauna, Nafarroako Unibertsitatea.

– Alban d’Entremont jauna, Nafarroako Unibertsitatea.



– Julio Muerza Esparza jauna, Nafarroako Unibertsitatea.

– Elena Iñigo Corroza andrea, Nafarroako Unibertsitatea.

– Fernando Rey Huidobro jauna, Nafarroako Auzitegi Nagusia.

– Eduardo Valpuesta Gastaminza jauna, Madrileko Sánchez-Pintado abokatu bulegoa.

Ikastaro honetan 100 ikaslek hartu zuten parte.

9. “Kontzertua Iruñeko Katedralean eta Musikaren Eguna Nafarroako Unibertsitatean” (2001eko irailaren 21ean). 200 pertsona inguru bertaratu ziren.

4. Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalak, Iruñeko Ikastetxe elkartuan honako ziklo hau egin du: “Kirola. Jarduna eta ikuskizuna” (Iruñeko UNEDen Ikastetxe Elkartua; irailaren 17, 18 eta 19; 30 ordu). Hauexek hartu dute parte:

– Jesús M<sup>a</sup> Osés Gorraiz jauna, UNED-Iruñeko Soziologia Departamentuko koordinatzailea.

– Manuel García Ferrando jauna, Valentziako Unibertsitateko soziologiako katedraduna.

– Eliteko 11 kirolari eta kirol munduan entzutea duten pertsona batzuk.

Jarduera honetan 18 ikaslek hartu dute parte.

5. Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalak, Tuteran, jarduera hauek bete ditu:

1. “Inmigrazioa. Fenomeno soziologikoa eta juridikoa” (Tuterako UNEDen Ikastetxe Elkartua; irailaren 17tik 19ra bitarte; 20 ordu). Parte hartu duten irakasleak hauexek izan dira:

– Carlos Echeverría Jesús jauna, Naziorteko Harremanetako irakaslea Madrileko UNEDeko Zientzia Politikoen Fakultatean.

– Rosa M<sup>a</sup> Gómez Redondo andrea, Madrileko UNEDeko Soziologia III Departamentuko irakasle titularra.

– M<sup>a</sup> Luisa Sánchez Muñiz andrea, LICITeko antropologo ikertzailea.

– Fátima Zhora Ayache andrea, soziologoa, LICITeko ikertzailea.

– José Luis Calvo Palacios jauna, Zaragozako Unibertsitateko Geografia eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentuko giza geografiako katedraduna.

– María Teresa Rubio Benito andrea, Madrileko UNEDeko Geografia Departamentuko irakasle titularra.

– Rafael Puyol Antolín jauna, giza geografiako katedraduna eta Madrileko Unibertsitate Konplutenseko errektorea.

– Vicente Rodríguez jauna, Madrileko Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiko Ekonomia eta Geografiako Institutuko ikertzailea.

– Ernesto Vidal Gil jauna, Zuzenbidearen Filofofiaren Departamentuko zuzendaria Valentziako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean.

– Maite Artázcoz Sanz andrea, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko Osasun Laguntzako Zerbitzuko zuzendaria.

– Pilar Canedo Arrillaga andrea, Deustuko Zuzenbide Fakultatea.

– Marina Vargas Gómez-Urrutia andrea, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko irakasle elkartua.

22 ikaslek hartu dute parte.

2. “Elikadura arazoak: ebaluaziotik tratamendura” (Tuterako UNEDen ikastetxe elkartua; irailaren 17tik 19ra; 20 ordu). Irakasle hauek hartu dute parte:

– Adrián Cano Prous jauna, psikiatra, Nafarroako Klinika Unibertsitarioko Psikiatria eta Psikologia Medikoko Departamentukoa.

– Germán Josué Erro jauna, psikologo klinikoa, Nafarroako Ospitalea, Tuterako UNEDeko irakasle-tutorea.

– Margarita Aguinaga Aguinaga, psikologo klinikoa, Iruñeko Ermitagañako Adimen Osasuneko Zentrokoa.

– Ana Isabel De Cos Blanco andrea, La Paz Ospitaleko Nutrizio Unitateko sendagilea.

– José R. Varo Prieto jauna, Psikiatriako Zerbitzuko burua, Iruñeko Ermitagañako Adimen Osasuneko Zentroko zuzendaria.

– José Luis Fernández Rodríguez jauna, psikiatra, Tuterako Adimen Osasuneko Zentrokoa, Tuterako UNEDeko zuzendaria eta irakasle-tutorea.

– Rosa Calvo Sagardoy andrea, La Paz Ospitale Unibertsitarioa, Madrileko unibertsitate Autonomoa.

– Josep Toro Trallero jauna, Ospitale Kliniko Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Psikiatriko Zerbitzuko burua.

– Alberto Espina Eizaguirre jauna, psikiatra, Euskal herriko Unibertsitateko Familia eta Bikote Terapiako Masterraren zuzendaria.

– José Luis Rodríguez-Arias Palomo jauna, psikologoa, Virxe da Xunqueira Ospitalekoa, Cee, A Coruña).

– Antonio Roma jauna, Oportoko S. Joao Ospitaleko Psiquiatria e Saude Mental Departamentuko Zerbitzuko burua.

– Emilio Gutiérrez García jauna. Santiago de Compostelako Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Psikologia Kliniko eta Psikobiologia Departamentukoa.

– Reyes Vázquez Lazo andrea, Pontevedrako UNED.

Ikastaro honek 67 ikasle izan ditu.

3."Oliba olio. Osasunetik ekonomiara". (Tuterako UNEDen ikastetxe elkartua; 2001eko irailaren 17tik 19ra; 20 ordu). Irakasle hauek hartu dute parte:

– Federico Vallés Belsue jauna, Córdobako HRSeke Kardiologia Zerbitzuko burua, Espainiako Kardiologiaren Elkarteko lehendakaria.

– Ana María Puras Gil andrea, Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitaleko Patologia Zerbitzuko burua, Espainiako Anatomia Patologikoaren Elkarteko lehendakaria.

– Pedro Mata López jauna, Madrileko Jiménez Díaz Fundazioko Lipidoen Unitateko zuzendaria.

– Francisco Pérez Jiménez, Barne Medikuntzako katedraduna Córdobako Unibertsitatean.

– Fausto Luchetti jauna, Nazioarteko Oleikultura Kontseiluko zuzendaria.

– Josep Puxeu Racamora jauna, Agrolesko zuzendaria nagusia.

– José Humanes Guillén, ingeniari agronomoko doktorea.

– Manuel Civantos López-Villalta jauna, Andaluziako Juntaren Jaengo Nekazaritzako Ordezkaritza Probintzialeko Landare Osasunaren Departamentuko burua.

– José Alba Mendoza jauna, Gantzaren Institutuko Almazara Esperimentaleko burua. Sevillako CSIC.

– Benigno Lizar Aranda jauna, nekazaritzako perittoa, olibondoetako espezialista.

– Aurelio Segovia Fernández jauna. Nazioarteko oleikultura Kontseiluko zuzendari atxikia. Ekonomiako dibisioburua.

– Luis Civantos López-Villalta jauna, Oliba Oliaren aldeko Agentziaren ikuskaritza Andaluzian. Ingeniaritza agronomoko doktorea.

– Pedro Subijana jauna, Donostiako Akelarre jatetxeko errestauradorea.

25 ikaslek hartu zuten parte.

6. Nafar Ateneoak hitzaldi ziklo bat egin du: "2001. Espazioaren Odisea bat" (Iruñeko Planetarioa; irailaren 17, 18 eta 19.) Parte hartzaileak:

– Luis Ruiz de Gopegui jauna, NASAREN Fresnedillako Estazioko zuzendari ohia.

– Javier Armentia jauna, Iruñeko Planetarioko zuzendaria, ARP-pentsaera kritikoaren aurrerape nerako sozietatea elkartearen lehendakaria.

Jardueraren barnean zen La Pamplonesa Musika bandak Ziudadelan eman beharreko kontzertua, Vicente egea jaunaren zuzendaritzapean.

Hitzaldietara 250 pertosna inguru bertaratu ziren eta kontzertura 250etik 300era bitarte.

7. Culturas Millenium Fundazioak honako jarduera hauek bete ditu: "Faraonen Egipto Historian zehar" (Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasgelategia; irailaren 17, 18 eta 19; 15 ordu). Hauek dira parte hartu duten irakasleak:

– Josep Padró Parcerisa jauna, Bartzelonako Unibertsitateko Egiptologia irakaslea, Oxirincoko (Egipto) misio arkeologikoaren zuzendaria.

– Josep Montserrat Torrens jauna, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko filosofiako katedraduna.

– María Luz Mangado Alonso andrea, Egiptologiako doktorea, Grafite Ediciones argitaletxeko Antzinako Ekialde Hurbilari buruzko bildumen zuzendaria, Culturas Millenium Fundazioaren irakaslea.

– Luis González jauna, Bartzelonako Museoko zuzendaria, Meidumeko (Egipto) Misio Arkeologikoaren zuzendaria.

167 ikaslek hartu dute parte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 18an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M<sup>a</sup> Laguna Peña.

## Alargun pentsioak hobetzeko neurriak hartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak alargun pentsioak hobetzeko neurriak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernándezek galdera egin du alargun pentsioak hobetzeko neurriak hartzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna.

1. Hartu al da Nafarroan inoiz lege-neurriren bat alargun pentsioak hobetzeko?

Ez.

2. Egin al liteke orain legearen eta ekonomia-aren ikuspegitik halakorik?

Konstituzioaren 149.1.17 artikulua ezartzen du Estatuaren erabateko eskumena dela Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta araubide ekonomikoa, zerbitzuak autonomia erkidegoek betetzen badituzte ere.

“Araubide ekonomikoa” Estatuarena baizik ez den eskumen gisa, bereizirik, aipatzeko arrazoia da Gizarte Segurantzaren sistemaren batasuna, eta ez arautze juridikoarena soilik, bermatzeko ahalegina, eta autonomia erkidego bakoitzean gizarte segurantzaren arloan lurraldearen araberrako politika ezberdinak egitea eragozte.

Konstituzio Auzitegiak uztailaren 7an emaniko 124/1989 Epaia arabera, sistemaren baliabide ekonomikoen kudeaketa eta finantza administrazioa Estatuaren eskumena da, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren bidez betetzen da, finantza elkartasunaren eta kutxa bakarraren printzipioak aplikatuz.

Estatuaren eskumen erabatekoa eta ukazina da Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoari dagokion guztia (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 26ko 46/1985 Epaia)

Galderaren bigarren zatia buruz, berriz, hau, ea ekonomiaren ikuspuntutik jarduketaren bat egin daitekeen alargun pentsioen zenbatekoa handitzeko, beharrezkoa litzateke jakitea zenbat handitu nahi den, horrek ekar lezakeen kalkulua egin ahal izateko eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak kontuan harturik hura gauzatzeko modurik baden baloratzeko.

Nolanahi ere, nahi dena lanbidearteko gutxieneko lansariarekin parekatzea baldin bada, Parlamentuko beste taldeek maiz agertu duten bezala, hona datuak:

Nafarroan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren nominan ageri diren alargun pentsiodunen kopurua 26.120 da, 2001eko abuztuan. Alargun prestaziorako ezarritako gutxieneko pentsioaren zenbatekoa (adinen arabera) hau da:

Alargun pentsio gutxienekoa, 65 urtetik gorakoentzat 62.455 pezeta

Alargun pentsio gutxienekoa, 60 urtetik 64 urtera bitartekoentzat 54.905 pezeta

Alargun pentsio gutxienekoa, 60 urtetik behekoentzat 43.810 pezeta

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak, 319.181.321 pezeta gastatzen ditu hilean Nafarroan “gutxienekoetan” alargun pentsio gutxienekoaren zenbateko horietara ailegatzeko (hiru adin tarreetan): Horrek 4.468.538.494 pezeta egiten du urtean (14 ordainketa).

4.468.538.494 pezetako zenbateko horri gehitu beharko litzaioke alargun pentsio gutxienekoaren eta lanbidearteko gutxieneko lansariaren arteko aldea, hau da, 9.665 pezeta hilean 65 urtetik gorakoentzat alargun pentsioen kasuan (135.310 pezeta urtean).

Lanbidearteko gutxieneko lansarira ailegatzeko ez diren alargun pentsioen kopurua 21.000 ingurukoa da, eta horrek urtean 2.841.510.000 pezetako zenbatekoa egingen luke, egungo gutxienekoetara ailegatzeko orain erabiltzen den 4.468.538.494 pezetako kopuruari gehitu beharrezkoa.

Bestalde, parekotasuna dugu:

Diru kopuru horiek Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetatik atera beharko lirateke, hau da, Nafarroako herritarrek horietarako egiten duten ekarpenetik.

Txirotasunaren eta gizarte bazterketaren aurkako borrokaren testuinguruan, Nafarroako Gobernuak baditu zenbait funts herritar txiroenei gutxieneko dirusarrerak bermatzeko xedearekin. Aipatutako proposamena onartu eta aurrera ateratzeak eskatuko luke, beraz, alargun pentsiodunendako ez eze lanbidearteko gutxieneko lansaritik beherako pentsioa jasotzen dutenendako ere izatea.

Ez da ahaztu behar antzeko egoeran daudela erretiroko pentsio gutxienekoa jasotzen dutenak, 65 urtetik beherakoak direnean 54.905 pezeta kobratzen baitute, eta 65 urtetik gorako kasuan, berriz, alargun pentsiodunen kopuru bera, 62.455 pezeta, alegia.

Horiek lanbidearteko lansari gutxienekoaren % 100arekin parekatzeak ekarriko lukeen zenbatekoa 8.000.000.000 pezeta ingurukoa litzateke urtean.

Bi kolektiboak lanbidearteko lansari gutxienekoaren % 100arekin parekatzeak, beraz, 15.310.000.000 pezeta inguruko gastua ekarriko luke berarekin.

Bada, gainera, beset kolektibo bat lanbidearteko gutxieneko soldataren % 100 egiten ez duen pentsioa jasotzen duena:

Aurtengo irailean kotizatu gabeko 3.487 pentsio ordaindu ziren.

Gogoratu beharra dago kotizatu gabeko pentsioaren zenbatekoa 41.910 pezetakoa dela haren kargura ezkontiderik ez dutenen kasuan. Zaila da zenbatesten zer ekarriko lukeen lanbidearteko lansari gutxienekoaren % 100era iristeraino osatzeak, azken muga hori ezartzeak kolektiboa handituko lukeelako (egun, dirusarrerak 41.810 pezeta baino handiagoak baina ere lanbidearteko gutxieneko lansaritik beherakoak izateagatik, kotizatu gabeko pentsiorik jasotzen ez duten guztiak sartu beharko lirateke-eta).

Guztiarekin ere, dudarik ez dago neurri horrek aipatutako zenbatekoa, hau da, 15.310.000.000 pezetakoa, gainditukoko lukeela.

Gure iritziz, pentsio sistemak parekotasunik gabeko egoerak eragiten baditu, egin behar dena da konponbideak bilatu sisteman berean, arazoa autonomia erkidegoen aurrekontuetara bideratu gabe.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urriaren 16an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--